

Historiaren irakaskuntza eta oroimenaren kultura: oroimen demokratiko baten eraikuntza bidean¹

(Teaching of history and culture of remembrance: building a democratic memory)

LAMIKIZ, Amaia

Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48.
20007 Donostia

Komunikazio honetan 2007 urtean Eusko Ikaskuntzaren Agustín Zumalabe bekaren laguntzaz aurrera eramandako Historia eta oroimena Euskal Herriko bigarren hezkuntzako eskoletan proiektuaren emaitzak aurkezten dira. Ikerketa honek 2. Batxilergoko historiaren irakaskuntzan oroimen historikoaren lanketaren egoera aztergai du. Bertan XX. mendeko historia nola irakas-ten den aztertu da eta etorkizunari begira oroimenaren kultura demokratiko bat bultzatzerakoan hezkuntzak bete behar duen papera planteatzen da.

Giltza-Hitzak: Oroimen historikoa. Oroimenaren kultura. Historiaren irakaskuntza. Hezkuntza.

A través de esta comunicación, se presentan los resultados del proyecto Historia y memoria en las escuelas de enseñanza secundaria de Euskal Herria, realizado en 2007 en virtud de la beca Agustín Zumalabe de Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios Vascos. El proyecto se sustenta en el análisis de la memoria histórica en la asignatura de Historia para los alumnos de 2º de bachillerato, observa la manera de impartir la asignatura de Historia del siglo XX y plantea el papel que la enseñanza debiera desempeñar para fomentar una cultura democrática.

Palabras Clave: Memoria histórica. Cultura de la memoria. Enseñanza de la Historia. Educación.

À travers cet exposé sont présentés les résultats du projet intitulé Histoire et mémoire dans les écoles d'enseignement secondaire d'Euskal Herria, réalisé en 2007 grâce à la bourse Agustín Zumalabe de la Société d'Études Basques. Le projet repose sur l'analyse de la mémoire historique telle qu'elle est évoquée en Histoire pour les élèves de Seconde. Il observe la manière d'enseigner la matière « Histoire du xxème siècle » et pose la question du rôle que l'enseignement devrait jouer pour encourager une culture démocratique.

Mots Clés: Mémoire historique. Culture de la mémoire. Enseignement de l'Histoire. Éducation.

1. Hurrengo orrialdeetan aipatzen den ikerketa Eusko Ikaskuntzak 2007 urtean emandako Agustín Zumalabe bekari esker burutu zen. Eskerrak eman nahi nizkioke Eusko Ikaskuntzari ikerketa lan hau garatzeko eman didan aukeragatik.

1. SARRERA

Aurreko hamarkadetan hainbat saiakera eman baziren ere, 2000. urtean Priaranzako gorpuak desobiratu zirenetik aurrera espainiar gizarteko sektore gero eta zabalagoetan iraganarekiko jarrera berri bat mamitzen hasi zela esan daiteke. Ordura arte, isiltasuna nagusitu izan zen gure historiaren azken mendeko hainbat gertakizunen inguruan: gerra zibila galdu zuten haien esperientzia eta ikuspegiak isildu eta ahaztuak izan ziren diktadura garaian. Are gehiago, garaituen isiltasunean oinarritzen zen iraganarekiko jarrera hau trantsizio urteetan zehar luzatu zen, demokraziarako trantsizioa konpromiso eta berradiskidetzeari oinarritzen zen heinean beharrezko bihurtzen omen bait zen hainbat gertakizun bortitz ahaztea. Esan bezala, guzti hau azken hamarkada honetan hasi da aldatzen, gizarte mugimendu zabal batek bultzatuta lehenik; ondoren eta mugimendu honi erantzuteko asmoz hasi dira erakundeak iraganarekiko jarrera aldatzen eta iragan horretan eman ziren hainbat gertaera argitzeko asmoz ekimenak sustatzen. Baina nola iritsi da mugimendu hau eskoletara?

Hurrengo orrialdeetan 2007 urtean Eusko Ikaskuntzaren Agustin Zumalabe bekaren laguntzaz aurrera eramandako *Historia eta oroimena Euskal Herriko bigarren hezkuntzako eskoletan* proiektuaren emaitzak aurkezten dira. Proiektu honek 2. Batxilergoko historiaren irakaskuntzan oroimen historikoaren lanketaren egoera aztergai zuen eta helburutzat oroimenaren berreskurapenaren inguruko eztabaidaren testuinguruan historia irakasle bezala sortzen zitzaizkidan hainbat kezkei erantzuna ematea zuen. 2006 urtean komunikabideetan behin eta berriro azaltzen ziren eztabaidak isladarik ote zuen eskoletan? Ze paper bete zezakeen oroimenaren lanketak historiaren irakaskuntzan?

2. OROIMEN HISTORIKOAREN PRESENTZIA HISTORIAREN IRAKASKUNTZAN

Gizarte Zientzietan historia eta oroimenaren arteko harremanari buruz luze idatzi da eta orokorrean adostasuna dago bi hauen artean bereiztu behar dela². Konplexua goa izan da beti bi hauen arteko harremanei buruz jardutea. Gure kasuan, historiaren irakaskuntza eta oroimena oso lotuak daude. Ezagutza zientifiko objektiboa helburutzat duen ikertzaileak oroimena bezalako kontzeptu batekin zailtasunak izango ditu segur aski; baina historia irakasle paper beste bat da: ezagutza zientifikoaren oinarritzko prozedurak irakasteaz gain, eduki batzuk helarazi behar dizkie bere ikasleei, baita jarrera batzuk ere. Eta eduki hauek aukeratzekoan gizarteak gogoratzen

2. Santos Juliák, adibidez, oroimena eta historia argi bereizten ditu: lehenengoa gogoratzea bezala ulertu behar den bitartean, bigarrena ezagutza prozesu batekin lotu behar da. Historia, iraganaren ezagutza zientifikoan oinarritzen den heinean, akumulatiboa da; oroimena aldiz, egoera politikoaren gora-beren arabera aldakorra da. Historian ezagutza zientifikoaren prozedurak eta objetibotasuna funtsezkoak diren bitartean, oroimenak orainaren arabera aukeratu egiten ditu gogoratu eta ahaztu nahi dituen gertaerak, beti ere oraina legitimatzeko eta birgaitzeko helburua bait du. JULIA, Santos (zuz.). Memoria de la guerra y del franquismo, 1. arg. Madrid: Taurus, 2006; 15-26 or.

Francois Bedaridaren hitzetan, historia gertakizunetik kanpo kokatzen da, bere helburua ezagutza zientifikoa da eta beraz gertakizunak modu kritiko batean aztertzen ditu. Oroimena, aldiz, gertakizunaren barne dago, bere helburua gertakizunari leial mantentzea da; oroitzen duen pertsonak leialtasun hau behar du gizartearen bere tokia aurkitzeko, erreferentzia bezala erabiltzen bait ditu oroitzapenak. Josefina Cuestak aipatzen du, CUESTA, Josefina: "De la memoria a la historia". In: ALTED, Alicia (koord.). Entre el pasado y el presente. Historia y memoria, 1. arg. Madrid: UNED, 1995; 76 or.

duena eta gogoratu nahi duena, baita erakundeek bultzatu nahi duten oroimena oso kontuan hartzekoak izango dira. Historiaren irakaskuntza oroimena transmititzeko bide bat bilakatu daiteke.

Bestalde, eskola ere Hobsbawmek aipaturiko tartean gelditzen diren espazio horietako bat dela uste dut, non historia eta oroimena berriro ere elkartzan diren eta askotan bien arteko bereizketa zaila egiten den³. Arrazoi desberdinak daude honetarako: aurretik esan den bezala, historiaren irakaskuntzaren helburua iraganaren ezagutza kritiko eta objetibo bat lortzen irakastea bada ere, oroimena zirrikitu guztietatik sartzen da ikasgelan. Askotan gertatzen da, irakasleek irakatsi behar duten garaia bizi izan dutela, eta beraz beraiengan historia eta oroimena Hobsbawmek aipatzen zuen zentzuan nahastu egiten dira: zaila egiten zaie historia dena eta oroimena dena bereiztea, gertakizun haiek bi zentzuetan ezagutzen dituztelako. Bestalde, ikasleak beraiek ere ikasgelara aurretik jasotako iraganari buruzko ezagutza batzuekin iristen dira, eta ezagutza hauek ez dira izaten ezagutza zientifiko eta objetiboak, baizik eta etxean edo kalean entzun dituzten istorioak, film edo dokumentalen batean ikusitakoa ez bada. Egoera hauen ondorioz, ikasgelan berriro ere historia eta oroimena elkarbizitzen aurki ditzakegu. Ikasleek irakasleari kanpoan entzundako zerbaiti buruz galdetzen diotenean, edo irakasleak bere esperientziei buruz hitz egiten duenean, historia eta oroimena nahastu egiten dira.

Oroimenak ikasgelan nolabaiteko presentzia badu ere, oroimenaren lanketak historiaren irakaskuntza prozesuan izan dezakeen paperaz ze punturarte jabetzen garen eta gure eguneroko jardueran honen inguruko hausnarketa bultzatzen dugun ez dago hain garbi.

Oroimenaren berreskurapenaren alde lanean ari diren hainbat elkarteren iritzi, oroimen historikoaren gaiak eta bereziki espainiar XX mende gatazkatsuen historiak toki gehiago izan beharko luke eskoletan. *Asociación para la Recuperación de la Memoria Histórica* (ARMH) elkarteko kideen ustez, gaur egun hainbat gaztek eskolan demokrazia garaia aurreko epealdi historikoa ikasteko aukerarik ez dute eta hau oztopo bat izan daiteke gaztediaren kultura demokratiko bat bultzatzeko orduan. Horregatik, XX. mendeko historiaren irakaskuntzari eskainitako gai bat osatzea proposatu dute, non ikasleek II Errepublika, Gerra Zibila eta Francoren diktadurari buruz informazio gehiago lortzeko aukera izango duten⁴. Ildo beretik, *Foro por la memoria* erakundearen iritzi, eskoletan oroimen demokratikoaren ahotsak indar gehiagoz en-

3. Eric Hobsbawm historigilearen ustez, oraina eta iraganaren arteko kontaktuan "itzalean" gelditzen den espazio bat badago, bien arteko denbora amankomun bat: "En todos nosotros existe una zona de sombra entre la historia y la memoria; entre el pasado como registro generalizado, susceptible de un exámen relativamente desapasionado, y el pasado como una parte recordada o como trasfondo de la propia vida del individuo (...). La longitud de esa zona puede ser variable, así como la oscuridad y la vaguedad que la caracterizan. Pero siempre existe esa especie de tierra de nadie en el tiempo. Para los historiadores, y para cualquier otro, siempre es la parte de la historia más difícil de comprender." HOBBSAWM, Eric John. *La era del Imperio (1875-1914)*, 1. arg. Barcelona: Labor, 1989; 2 or.

4. Elkarte honen ustez, II Errepublika azaltzerakoan honen lorpen politiko eta sozialak argi azaldu beharko lirateke; gerra zibilar buruzko historia alderdi militarretan zentratu beharrean errepresioarekin erlazionatu beharko litzateke gehiago (kontzentrazio esparruak, erbesteak...), eta Frankismo garaiko azalpenetan ere errepresioari espazio gehiago eskeini beharko litzaiokete. Hala ere, eta testu liburuak aztertu ondoren, gai hauek aipatu egiten direla argi dago, nahiz eta kasu batzuetan agian gehiago aipa daitezke. Baina ezin da esan gaur egun gai hauek isiltzen direnik.

tzun beharko lirateke, gazteek demokraziaren balioetan hazteko duten espazio nagusienetakoa eskola bait da⁵. Erakunde honen ustez II Errepublikaren porrotaz hitz egiten duen eta Francoren diktaduraren ezaugarriak biguntzen dituen historiaren interpretazioarekin amaitu behar da eta argi utzi behar da gainera Gerra Zibila gobernu demokratiko legitimo batek sufritutako eraso faxista baten ondorioa izan zela. Azken esaldi honekin ados ez egotea zaila bada ere, ñabardurak behar dituela esango nuke. Orrialde hauetan aurkezten den ikerketaren arabera, ikasleek Gerra Zibilaren kausa eta ondorioen inguruan informazio gehiago behar dutela badirudi ere, ezin da esan irakasten den historiak diktadura garaia ezaugarriak biguntzen dituenik.

Erakunde hauen iradokizunak alde batera utzita, argi dago eskola komunitatean gai honen inguruan kezka eta interesa bada goela. Irakasle askok azken urteetan erakunde desberdinek oroimenaren berreskurapenaren inguruan egiten ari diren lana ezagutzen dute eta lan honen garrantzia nabarmentzen dute. Ikerketa honetarako hainbat irakasleei oroimenaren berreskurapenaren inguruan duten iritziaz galdetu zaienean, erantzuna argia izan da: derrigorrezkoa da XX. mendearen historia irakasterakoan gai hau lantzea, gaur egungo gizartea eta bertan hartu izan diren erabakiak hobeto ulertu nahi baditugu.

Orain arte ikasgeletan oroimenaren inguruan lan gutxi egin bada ere, badirudi eskoletako irakasle goa prestatzeko saiakerak hasi direla. *Garatu* egitarauaren barruan geografia eta historia irakasleei zuzendutako ikastaro pare bat antolatu dira azken urteetan *-Memoria histórica y memoria colectiva*, 2008 eta 2009 urteetan antolatuak⁶. Ikastaro hauen helburua, oroimen kolektiboaren transmisioa ikasgelan nola gertatzen den lantzea, baita oroimen historiko eta kolektiboa osatzerakoan gizarateak eta historigileek eragiten dituzten prozesuak azaltzea da. Irakasleen artean gai honekiko interesaren adierazle dira, baita ere, azken urteetan antolatu izan diren jardunaldiak: 2006 urteko irailean Madridero Complutense Unibertsitatean antolaturiko *La historia reciente en las aulas* jardunaldiak eta 2007 urteko otsailean Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan gizarte zientzien didaktika departamenduak antolaturiko *La investigación sobre la enseñanza y el aprendizaje de la memoria histórica* jardunaldiak. Era honetako jarduerak bigarren hezkuntzako eta unibertsitate mailako irakasleak elkartzen dituzte, oroimena eta historiaren irakaskuntzaren gaien inguruan eztabaidatzeko, bi irakasle talde hauen artean egon ohi den komunikazio falta gainditzeko pauso garrantzitsua suposatuz. Hala ere, esan beharra dago oso informazio gutxi iristen dela eskoletara halako jardunaldien antolaketaren inguruan eta jardunaldi hauen emaitzak ere ez direla beti behar bezala zabaltzen.

Bestalde, programa ofizialek ere ez dute lan honetan gehiegi laguntzen. Bigarren batxilergoko historia gaiari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako dekretuaren arabera hel-

5. Foro por la Memoria erakundeko kide batek Madridero Complutense Unibertsitatean *Cátedra de Memoria Histórica del Siglo XX* delakoak antolaturiko "La historia reciente en las aulas (el conflicto como materia educativa)" jardunaldian aurkeztutako artikulua (2006.09.11-13).

6. Bigarren hezkuntzan irakasten duten hainbat irakasleren ekimenak bultzatuta sortu zen kurtso hau antolatzeko ideia: azken urteetan oroimenaren inguruan piztu den eztabaidaren inguruan ikasleekin lan egiteko beharra ikusten zen, baita gai honen lanketaren bidez irakaskuntzarako baliabide berriak aurkeztearena (internet, blogak, etab.). Antzeko ekimenak dira, adibidez, Huescako UNED-eko kideek bigarren hezkuntzako irakasle batzuekin batera azken urteetan antolatu izan dituzten jardunaldiak *-La memoria silenciada*, edota galiziar *Sine Nomine* irakasle taldearen lana.

buruen artean “egungo gizartearen ezaugarrien, gatazken eta erronken sustrai historikoak ezagutzea”, “egungo gizartearen irudi aniztun eta integratzailea eraikitzea” eta “kontzientzia konprometitua, arduratsua eta aktiboa garatzea” daude⁷. Bereziki eskubide demokratikoen, giza eskubideen eta bakearen defentsan insistitzen da, baita ondarearen errespetua eta kontserbazioan eta edozein diskriminazio mota baztertzeko beharrea. Dударik gabe oroimenaren lanketak helburu hauetara iristeko bere ekarpena egin lezake, baina dekretu honek oroimen historikoa ez du inon aipatzen eta ez da oroimen historikoaren inguruko inongo hausnarketaren beharrik planteatzen.

Izan ere, oroimenaren lanketak ez du apenas tokirik historia klaseetan. Ikasleek ez dute oroimenaren berreskurapenaren inguruan sortu den eztabaidaren inguruan informazio gehiegirik jaso eta euren testu liburuetan gaia ez da aipatzen. Gai honen lanketa irakasleen interes eta ekimenaren arabera da, ez da modu sistematiko batean ikasgeletan lantzen den gaia.

Zentzu honetan, 2007-2008 urteetan aurrera eramandako ikerketaren emaitzen arabera, bigarren batxilergoko ikasle gehienek XX. mendeko historiarekiko jakinmina adierazi badute ere, *oroimen historikoa* eta *oroimenaren berreskurapena* kontzeptuak ez dituzte apenas ezagutzen⁸. 10 ikasleetatik ia 7-k ez dituzte *oroimen historikoa* eta *oroimenaren berreskurapena* kontzeptuak ezagutzen, eta ezagutzen dituzten ikasle horietatik gutxiengo batek besterik ez du esan kontzeptu hauek eskolatik ezagutzen dituenik. Gehiengoak komunikabideetatik jaso du kontzeptu hauei buruz dakiena. Ezer gutxi dakite ikasleek oroimenaren inguruan gure gizartean sortu den eztabaidari buruz.

Irakasleek diotenari jarraituz, XX. mendeko historiari dagokionez ikasleen gehiengoak informazio gutxi eta hutsune ugari dituzte. Goian aipaturiko ikerketaren emaitzei jarraituz, orokorrean gazteek II Errepublika eta gerra garaiko gertakizun eta pertsonaien oso ezagutza urria dute eta garai batean hain esanguratsua zen data batek-uztailaren 18.a- ez die ezer esaten. Gerra Zibilari dagokionez, badirudi testu liburuetan gai hauen konplexutasunari buruz esaten dena ikasleek ez dutela guztiz barnerratu, gerra zeinen artean eta nola eztanda egin zuen azaltzean, oso azalpen sinpleak ematen bait dituzte. Bestalde, gerraren amaieraren inguruan ezagutza falta handia dago –gerra zein urtetan amaitu zen zehazteko zailtasunak, baita amaierara eramaten zuten gertakizunak azaltzeko ere-. Ez dirudi, beraz, ikasleek diktaduraren hasera azaltzen duten gertakizunak oso garbi dituztenik. Deigarria da, baita ere, ikasleek duten bortizkeria eta errepresioarekin loturiko toki eta gertakizunen ezagutza mugatua. Durangoko bonbardaketa eta Saturrarango emakume kartzelari buruz entzun badute ere, beste hainbat gertakizun arrotzak egiten zaizkie. Orain arte ia aipatu ez diren gaiak direla kontuan izanik, ez da harrizkoa ikasleek gertaera hauen inguruan hain informazio gutxi izatea. Bestalde, hau bat dator oroimenaren inguruan dagoen

7. Euskal Autonomia Erkidegoan Batxilergoko curriculumaz ezartzen duen dekretua: *23/2009 DEKRETUA*, otsailaren 3-koa.

8. Oroimenaren legearekin antzeko gauza gertatzen da, 10 ikasleetatik 3-k besterik ez dute honen inguruan zerbait entzun, eta dakitena komunikabideei esker dakite. Oroimenaren eztabaida honekin lotura zuten argazkiak ere ez dituzte identifikatu ikasleen gehiengoak, eta Gerra Zibila eta Frankismo garaiko bortizkeria eta errepresio jardueri buruz ere gutxi dakitela adierazi dute. LAMIKIZ, Amaia. Historia eta oroimena Euskal Herriko bigarren hezkuntzako eskoletan, 2008, argitaratugabea.

ezagutza faltarekin: ez da eskolan gehiegi lantzen den gaia, eta testu liburuak aztertean ere ikusi da gaur egun hainbat gauza ezkututzen ez badira ere, gehiago azaldu beharko liratekeela.

Testu liburuei dagokionez, argi dago azken hamarkadan argitaratu diren testu liburuetan ematen den informazioa aldatu egin dela, iraganarekiko jarrera berri bat azalduz. Historiaren irakaskuntzaren helburu berriei jarraituz, azken liburu hauen edukiak kultura politiko demokratiko bat bultzatzea eta hiritar aktiboak hezteko zuzendu dira, eta horretarako aurreko edozein testu liburuk baino garrantzi gehiago eskeini diote XX. mendeko historiari: azken ikerketa historikoen emaitzak jasotzen dituzte, baita ordura arte isilduta gelditu ziren gertaerak ere, Gerra Zibila eta diktadura garaiko bortizkeria eta errepresioa ez dira ezkututzen eta demokraziarako trantsizio prozesuaren azalpenak ematen dira. Testu liburuek gertakizunen konplexutasuna azpimarratzen dute eta azalpen sinplifikatuak baztertzen dituzte. Gerra Zibilaren ondoren isiltasunera zigortuak izan ziren haien oroimenak berreskuratzean, oroimen demokratiko berri baten eraikuntzaren lehen pausoak ematen ari dira⁹. Hala ere, testu liburu batzutan hainbat gertakizunei buruzko informazioa zabalagoa izan zitekeen, batez ere orain dela gutxi arte isildu diren errepresio eta gertaera bortitzen inguruan. Diktaduraren irudikapenari dagokionez, azken hamarkadetako testu liburuek ordura arte isildutako aspektuak tratatzen dituzte. Hala ere, testu liburuak ikertu dituztenek ohartarazi egiten dute testu liburuen artean desberdintasunak daudela oraindik ere, batez ere diktaduraren historia interpretatzerakoan¹⁰.

Testu liburuetan nabari den hutsunerik handiena oroimen historikoaren trataerari dagokio. 2000 urtearen ondoren garatu den oroimenaren berreskurapenerako gizarte mugimenduaren aipamenik ez da egiten testu liburuetan: desobiraketak, bortizkeria biktimen omenaldiak, Frankismo garaiko sinboloen erretiratzea, erakundeek harturiko erabakiak... ez dira ez testuan zehar ezta argazkietan ere azaltzen. Liburu bakar batek egiten du *oroimen leku* kontzeptuaren erabilera, bere orrialdeetan gizartean orokorrean onartuak dauden eta nolabaiteko pisu sinbolikoa duten gertakari batzuk jaso eta azalduz. Aurreko hamarkadetako testu liburuek isladatzen zuten isiltasuna azken hamarkadako testu liburuetan apurtu bada ere –bortizkeria eta errepresioa ez dira isiltzen, ezta diktaduraren aurka borrokatu zuten haien jarduera ere-, aurreko urte horietako ahanzturari buruzko hausnarketarik ez da inon azaltzen.

Baina ez nuke nahi atal hau aurreko orrialdeetan azaldu den oroimenaren lanke-tari buruzko panorama goibelarekin amaitzea. Izan ere, oroimenaren berreskurapena- ren inguruan dagoen geroz eta interes handiagoaren adierazgarri dira azken urteetan

9. Orokorrean, oraingo testu liburuek gaur egungo kezkei erantzuten diete: espainiar demokraziari iragan baliagarri bat eskeini nahi diote, II Errepublika garaiko demokraziaren eta Frankismoari oposizioa egin zioten sektoreen oroimena berreskuratuz. BOYD, Carolyn P. "De la memoria oficial a la memoria histórica: la guerra civil y la dictadura en los textos escolares de 1939 al presente". In: JULIA, Santos (zuz.). Memoria de la guerra y del Franquismo, Madrid: Taurus, 2006, 98 or.

10. Iragan gatazkatsu baten oroimen sozial desberdinen islada dira testu liburuak. Carolyn Boyd-ek desberdintasun nabarmenak ikusten ditu testu liburu aurrerakoi eta kontserbadore bezala definitzen dituen horien artean: diktadura garaiko errepresioa tratatzeko modua oso desberdina da testu liburu bakoitzean, baita diktadura garaiko egoera ekonomikoaren garapena azaltzean egiten diren balorazioak eta demokraziarako trantsizioa azaltzean protagonista desberdinei ematen zaizen pisua. BOYD, P.C.: "De la memoria oficial a la memoria histórica: la guerra civil y la dictadura en los textos escolares de 1939 al presente", In: JULIA, S. (dir.): Memoria de la guerra y del franquismo, 1. arg. Madrid: Taurus, 2006; 97 or.

hainbat eskoletan aurrera eraman izan diren ekimenak. Ekimen hauei buruzko informazioa aurkitzea erraza izan ez bada ere - informazioa oso sakabanatua dago eta ez da gehiegi zabaltzen-, oroimen historikoa lantzeko era askotako jarduerak aurkitu dira. Hauen artean:

1. Garaiko protagonistekin edota garai hura ikertzen duten ikerlariekin elkarrizketak.
2. Oroimen lekuetara bisitak. *Bazen behin* programaren barruan Irungo Pío Baroja institutuko ikasleek azken bi urteetan Gurs-eko internamendu esparrua bisitatu zuten eta honen inguruan hainbat jarduera eraman zituzten aurrera oroimen kolektiboa berreskuratzeko helburuarekin¹¹.
3. Ahozko historia lantzeko proiektuak. Ahozko iturriak erabiliz oroimen historikoa berreskuratzeko lanetan II Errepublika, Gerra Zibila, errepresioa eta Frankismo garaiko eguneroko bizitzari buruzko ikerketak burutzen dituzte ikasleek. Ahozko historiaren metodologia erabiltzen duten proiektuek eskola munduari ekarpen handiak ekartzen dizkiote: informazio iturri desberdinak erabili eta informazioa modu kritiko batean aztertzeak aukera ematen dute, belaunaldi desberdinen arteko komunikazioa bultzatzen dute eta iragan gatatzatsu baten aurrean jende desberdinaren jarrerak azaltzean, gatatzak inguruko hausnarke-ta bultzatzen bait dute¹².
4. Arte espresioaren erabilera oroimenaren lanketa egiteko. Arratiako kultura ondarea sustatzeko proiektu baten barruan, Arratiako institutuko ikasleek oroimen historikoa eskolan lantzeko musika talde bat sortu zuten, *AK -37*: gerra garaiko kanta zaharrak jaso ondoren, diska bat grabatu zuten, Gerra Zibilean parte hartu zuen Arratia Konpainiari omenaldi bat eginez¹³. Bestalde, Anoetako ikastolak Europar proiektu batean parte hartzen du (*Sharing European Memories*), non arte espresio ezberdinen bidez gaztediari aurreko belaunaldien historia kontatzeko aukera ematen zaion. Helburua, herrialde desberdinetako gazteek Europak bizi izan dituen gatatzak oroimen historikoa lantzea da, etorkizunari begira denon artean oroimen historiko amankomun batean oinarritzen den Europar hiritartasuna eraikitze¹⁴.

11. Ikasleek Gurs-eko internamendu esparruan izandako haur bat elkarrizketatzeko aukera izan zuten, gai honen inguruan unitate didaktiko bat osatu eta landu zuten eta ondoren Gurs-era bidai bat antolatu zuten. Informazio gehiago: <http://www.bazenbehin.net/irun/gurs/gurs2007/esp/gurs.html>

12. Orain dela hamabost bat urte Zubietan aurrera eraman zen ekimena lan honetan aurrekari interesgarria kontsidera daiteke. Ahozko historiaren loraldiaren testuinguruan, metodologia hau erabili zuten Lekaroz Institutuko ikasle eta irakasleek gerra zibila bizi izan zuten herritarrak elkarrizketatzeko. Helburua, besteen artean, historia ofiziala eta herritarrek gordetako oroimenak alderatzea zen. Lan hau liburuxka interesgarri batean argitaratu zen 1995 urtean. ELKARREN ARTEAN. Zubietan 1931-1936. Errepublika eta 1936ko gerra Baztan-Bidasoan. Ahozko dokumentuak, 1. arg. Zarauz: Itxaropena, 1995. Bestalde, Barañaingo Alaitz institutuko ikasleek *Gogoan* proiektuaren barne, Gerra Zibila eta Frankismoari buruzko ikerketa bat burutu zuten, oroimen historikoaren lanketak eskeintzen dituen aukerak aprobetxatuz, historiaren irakaskuntzan trebatu beharreko prozedurak -informazio bilketa, analisi eta interpretazio kritikoa- landuz. Honen inguruan informazio gehiago: <http://www.alaitz.net/>

13. Honen inguruan ikus Juan Rekalde: *Memoria ala ahaztura historikoa?* pdf dokumentua interneten (<http://www.mendealde.com/modulos/usuariosFtp/conexion/archi377A.pdf>)

14. *haring European Memories* proiektuaren inguruan informazio gehiago: <http://www.sharingmemories.eu>

Ikusten denez, ekimen ezberdinak dira, bai eskatzen duten denbora eta planifikazioari dagokionez, baita aurrera eraman izan diren garaiari dagokionez ere. Kasu batzuetan kezka oroimenaren berreskurapenaren inguruko eztabaida hasi baino askoz ere lehenagokoa bada, beste batzuetan argi dago eztabaida hau izan dela eskolak jarduera berriak antolatzen eraman dituenak. Argi gelditzen da oroimenaren lanketa ez dela zentru guztietan egiten den lan sistematikoa, baizik eta zentru bakoitzaren eta bertan lan egiten duten irakasleen ekimenen arabera dela. Interesa duten irakasleak mobilizatu egiten dira, bere kabuz informazioa biltzen dute eta jarduerak antolatzen dituzte, baina gai honen lanketa ez da programa ofizialetan azaltzen eta ez dago eredu sistematizaturik.

3. OROIMENAREN LANKETA ETA OROIMEN DEMOKRATIKO BATEN ERAIKUNTZA

Historiaren irakaskuntza eta oroimenaren arteko harremanak planteatzen direnean, bi aspektu azaltzen zaizkigu: oroimenaren berreskurapenaren alde eskolan egin daitekeen lana batetik, eta oroimen demokratiko baten eraikuntzan eskolak egin dezakeen ekarpena bestetik. Bai batak eta bai besteak edukietan soilik baino gaitasunetan ere oinarritzen den historiaren irakaskuntza bati ekarpen interesgarriak ekar diezaioke: ikerketa proiektuen bidez ikasleek oroimenaren gaia lantzen dutenean, ikasketa autonomoa, informazio bilketa eta trataera kritikoa baita balio demokratikoen lanketa ere egin ditzakete.

Zentzu horretan, historia politiko hutsa baino urrutirago joan behar dugu, ez da nahikoa gertakizun politikoak ezagutzearekin, irakasleek gizartearen egoeran, bere barne bizi ziren talde desberdinen artean ematen ziren harremanetan, kultur mailako ezaugarrietan, etab. gehiago insistitu beharko lukete. Horrek gauzak nola eta zergatik gertatu ziren ezagutu eta hobeto ulertzen lagundu dezake, baita iraganaren aurrean ikuspegi kritikoago bat izaten eta etorkizunari begira errepikatu behar ez diren akatsak identifikatzen.

Gure testuingurura ekarrita, ez da bakarrik kontzentrazio esparruak eta fusilamenduak egon zirela, oraindik identifikatu gabeko hainbat gorpu hobietan jarraitzen dutela, edota milaka emakumek kartzelan sufritu behar izan zutena azaldu behar, baizik eta ariketa desberdinen bidez gertakizun horiek testuinguru konkretu batean jartzen irakatsi behar dugu, gertakizunak testuinguru horretan interpretatzen ikasteko. Bestalde, ikasleekin hausnarketa landu beharko litzateke: gizarte batean halako gauzak egitera nola iritsi daitekeen, gertatu ondoren adiskidetzeko prozesu bat nola bultzatu eta etorkizunari begira halako gauzak nola ekidin.

Azken batean, historiaren irakaskuntzak erabilgarritasuna badu, gizartean ematen diren hainbat prozesuren funtzionamendua ulertzean datza, eta hauen barruan iragan gatazkatsu baten aurrean nola jokatu, gatazkak nola konpondu eta berradiskidetzeko prozesuak nola bultzatu. Gure kasuan, azken mendeko gertakizunen inguruan erreflexionatzeak, gerra zibil eta diktadura luze baten ondoren, demokraziarako trantsizio prozesu bat nola gertatu daitekeen irakasten digu. Bertan aktore askok hartu dutela parte, eta ez dela bakarrik erakunde politikoaren aldaketa, baizik eta gizarte guztira hedatu behar den prozesu bat. Etorkizunari begira, gure gazteek gizartean bizitzeko beharko dituzten hainbat tresna garatu ditzakete goian aipaturiko gaien inguruan lan eginez.

Baina edukiek ere badute bere garrantzia oroimenari buruz irakasterakoan, ez bait da ahaztu behar askotan gertakizunen ezagutza faltak ondorio negatiboak izan ditzakeela. Falk Pingelek gogorarazten digu palestinar eta israeldarren arteko harreman historikoari buruz irakasterakoan ikasleen ezagutza faltak elkarren arteko ulermen arazo eta aurreiritziak eragiten dituela eta elkarbizitza zailagoa bihurtzen dela¹⁵. Balio demokratikoetan oinarritzen den oroimen historikoa eraikitzean, iragan gatazkatsuei buruz irakastean ekidin beharko liratekeen hainbat arrisku daude¹⁶: ezjakintasunaren tokian aurreiritziak koka ez daitezten, gatazka batean parte hartu zuten alderdi desberdinei buruzko informazio ahalik eta zehatz eta osatuena eman behar da. Ezin dezakegu ezagutza faltsuak zabaltzeko aukerarik eman, hauek estereotipoak sendotuko bait dituzte eta ondorioz ikasleak interpretazio desegokiak egingo bait ditu, alderdi desberdinen egoerak ahalik eta modu objetiboenean ulertu beharrean. Bestalde, historiaren irakaskuntzan, bereziki gatazkei buruz irakasten dugunean, beti saiatu behar dugu giza dimentsioa mantentzean. Izan ere, ezin da berradiskidetzetik egon bestea ezagutu eta onartu gabe. Irakasleek, testu liburuek eta beste edozein material didaktikok gatazka batean hartzen duten alderdi guztiei buruz informazio ahalik eta zehatz eta osoena eman behar dute, ikasleek iragana bere konplexutasun eta osotasunean ezagutzeko aukera izan dezaten¹⁷. Espainia eta Euskal Herriaren iragan gatazkatsua buruan izanik, eta iraganen honen inguruan oroimen bakarra ez dagoela kontutan harturik, eskolan gai hau kontuan eduki behar da.

Lan honekin loturik egongo litzateke oroimenaren kulturaren sustapena deritzona. Azken kontzeptu hau gizartearen oraindik oso zabaldua ez badago ere, espainiar testuinguruan bere erabilpena gero eta hedatuagoa dago eta azken urteetan iraganarekiko eman den jarrera aldaketa adierazten du¹⁸. Gaur egun kontzeptu hau nagusiki Gerra Zibila eta II Errepublika garaiko oroitzapen jardueri loturik aurkitzen dugu. *Oroimenaren kultura* gizarte jakin batek bere iraganarekiko duen jarrera da: iragan horretatik zati batzuk nabarmenduz eta nahita eguneratuz, irudi jakin bat gizartearen

15. PINGEL, Falk (ed.). *Contested Past, Disputed Present. Curricula and Teaching in Israeli and Palestinian Schools*. In: *Studien zur internationalen Schulbuchforschung*, Bd.110/2, 2003; 27 or.

16. KOMEM, Yitzhak. "Teaching the Arab-Israeli conflict. An Israeli teacher's experience". In: PINGEL, Falk (ed.). *Contested Past, Disputed Present. Curricula and Teaching in Israeli and Palestinian Schools*. *Studien zur internationalen Schulbuchforschung*, Bd.110/2, 2003; 135-150 or.

17. PINGEL, Falk. "Two stories of vicimization and self-assertion. Schoolbooks and curricula in the context of politics and academic research". In: PINGEL, Falk (ed.). *Contested Past, Disputed Present. Curricula and Teaching in Israeli and Palestinian Schools*. *Studien zur internationalen Schulbuchforschung*, Bd.110/2, 2003; 27 or.

18. Beste hizkuntzetan duen erabilerarekin konparatzen badugu, kontzeptu hau euskaraz ez da apenas erabiltzen, eta gaztelerez ere oso erreferentzia gutxi aurkitzen dira. Alemanieraz (*Erinnerungskultur*) edota ingelesez (*culture of remembrance*) askoz ere erabilpen zabalagoa du kontzeptuak, gai honen inguruan kezka handiago bat adieraziz. Orain dela gutxi arte gure testuinguruan oroimen historikoaren berreskurapenaren garrantziaren inguruan egon den kontzientzia mugatuaren adierazgarritzat har daiteke datu hau. Izan ere, azken urteetan hasi gara gaztelerez *cultura de la memoria* delakoari buruzko informazioa aurkitzen. Orain dela gutxi arte, kontzeptu honi buruz geneakiena diktadura egoera bat atzean utzitako Hego Amerikako herrialdeetatik zetorren eta gizarte demokratiko berrietan bultzatu nahi zen oroimenari egiten zion erreferentzia. Kontzeptu hau askotan alemanian erabili izan da, baita EEBBetan ere, II Mundu Gerraren inguruko gertakizunak eta Shoa eztabaidatzen direnean. Kontestu horretatik iritsi zaigu kontzeptu honen erabilera, askotan Gerra Zibila eta Diktaduran isilik mantendu denaren oroimena berreskuratzeko mugimenduei lotua.

sustraitzen da. Gizarte horrek irudi hori eraiki, mantendu eta hurrengo belaunaldiei helaraziko die, gizarte horren identitatearen osagarri bat bezala.

Oroimen hori eraiki eta lantzeko erabiltzen diren tresnak dira oroimenaren politika batek erabiltzen dituenak. Orokorrean erakunde ofizialek martxan jartzen duten oroimen konkretu bat sortu eta osatzeko jarduera multzoari deitzen zaio oroimenaren politika. Normalean estatu baten barruan erakunde ofizialek eramaten dute aurrera halako jarduera, baina ekimen pribatuak ere parte hartu dezake gizarte batean oroimenari eduki eta forma emateko prozesu horretan. Oraina azaldu eta askotan justifikatuko duen iragan baten elaborazioa izan ohi da, eta bere baliabideak modu askotarikoak izan daitezke: festa eta oroitzapen egunen ospakizuna, oroimen lekuen antolaketa eta zaintza, museoak eta erakusketak, monumentuak, esanahi berezia duten eraikuntza edota objektuak mantendu eta hauei protagonismo berezi bat ematea, etab. Zentzu horretan, eskola ere gizarteko gazteenen kontzientzia historikoan izan dezakeen eraginagatik oroimenaren politika jakin bat aurrera eramateko baliabide bat kontsidera daiteke. Testuinguru horretan kokatu behar dira *oroimen leku* bezala ezagutzen ditugunak (*lieux de mémoire*): iraganarekin lotura bat adierazten duten kultur fenomenoak, belaunaldietan zehar bidaiatzen den oroimenean esanahi sinboliko berezi batez beterik daudenak eta taldearentzako talde bezala identifikatzea laguntzen duen esanahi konkretu bat dutenak¹⁹.

Carme Molinero historigilearen hitzetan, funtsezkoa da erakunde demokratikoen gure oroimen kolektiboa iraganaren ezagutza zehatz eta objetibo batekin osatzeko ahaleginak sustatzea. Erakunde demokratikoen gizarteak adierazten duen oroimen eskaerari erantzun behar diote. Bere ustez oroimenaren kultura berri bat zabaldu behar da, eta horretarako oroimenaren politika aktiboa bultzatu behar dute erakundeek. Azken batean, gaur egungo gizarteetan oroimen kolektiboa osatzeko orduan oroimenaren politika publikoek funtsezko papera betetzen bait dute. Politika honek bere barne hartu beharko lituzke gerra zibilararen oroimen desberdinak baita frankismoaren eta bere ondorioen oroimena eta antifrankismoaren oroimena ere. Benetan demokratikoa den gizarte bat ezin da ahanzturan oinarritu, baizik eta demokratikoagoa den oroimen baten eraikuntzan²⁰. Gizarte demokratiko batean, oroimenaren politika publikoak balio demokratikoen defentsa izan behar du helburu bezala. Demokrasiak

19. Kontzeptu honen erabilpena asko zabaldu da azken aldian, baina bere jatorria Pierre Noraren ikerketa lanetan dago. Ikus NORA, Pierre (zuz.). *Le lieux de mémoire*. La République, 1. arg. Paris: Gallimard, 1984. Molineroek Pierre Noraren hitzak hartzen ditu kontzeptu hau definitzeko: "son aquellos espacios –no necesariamente físicos– en que la memoria se ha encarnado selectivamente, y que por la voluntad de los hombres o el trabajo de los siglos han permanecido como los símbolos más luminosos de aquella: fiestas, emblemas, monumentos y conmemoraciones, pero también elogios, diccionarios y museos." MOLINERO, Carme. "¿Memoria de la represión o memoria del Franquismo?". In: JULIA, Santos (zuz.). *Memoria de la guerra y del franquismo*, 1. arg. Madrid: Taurus, 2006; 219-246 or.

20. MOLINERO, Carme. *Memoria y democracia*, EL PAIS, 07.11.04. Ikus baita MOLINERO, Carme. "Lugares de memoria y políticas de memoria". In: GOMEZ ISA, Felipe (zuz.). *El derecho a la memoria*, 1. arg. Zarauz: Itxaropena, 2006; 300-306 or. Hala ere historigile guztiak ez datoz bat oroimenaren politika berriei dagokionez. Askok kritikatu egiten dute oroitzapenaren politika baten izenean historigileen lana alderdi baten edo bestearen jarrerak defendatzeko erabiltzea, gizarte batean oroimenaren lanketak duen garrantzian erreparatu gabe. Kezka hau azaltzen du, adibidez, Abdón Mateos historialariak, oroimen demokratikoaren eraikuntza kontzeptuarekiko bere zalantzak azaltzen dituenen: MATEOS, Abdón. *Historia y memoria democrática*, 1. arg. Madrid: Eneida, 2007.

sustraiak behar ditu, eta hauek iraganeko askatasun eta giza eskubideen aldeko borrokaren esperientzian oinarritu behar dira.

Carme Molinero historigileak dionez, oraindik ere Francoren garaiko oroimen lekuen presentzia nabarmena da espainiar hirietan; horrexegatik iraganean gizarte bidezkoago eta libreago batengatik borrokatu zuten haien presentzia berreskuratu behar dela defendatzen du²¹. Oroimenaren politika publiko berriaren helburua gizar-tearen elkarbizitzarako balio demokratikoen defentsa izan behar da. Prozesu honek zauri zaharrak ireki ditzakeela argudiatzen duten horiei erantzun bezala, Molinero-k zera dio: erakunde demokratikoez ez dute aurkakotasunik piztu behar, baina iraganari buruzko hausnarketa bultzatu behar dute, eta Espainiaren kasuan horrek antifrankismoaren oroimenarekin batera gerra zibil garaiko eta diktadura garaiko oroimena berrikustea esan nahi du.

Orain arte ez da espainiarren gehiengoak berea egin dezakeen historiaren interpretazio bat eraiki, baina argi dago azken urteetan XX. mendeko gertakizunen ezagutza historikoaren eskaera espainiarren artean handitu dela²². Une hauetan bi alderdi dituen prozesu baten aurrean aurkitzen gara: gerra galdu zuten eta isilaraziak izan ziren haien oroimenaren berreskuratze lana alde batetik, eta hiritarren gehiengoak onartuko duen oroimen demokratiko baten eraikuntza bestetik.

Gure kontestuan, oroimenaren politika publikoak oraindik nahiko berriak dira eta oroimenaren lekuen sortzea apenas hasi da. Generalitat de Catalunya-k, adibidez, oroimen demokratikoaren berreskurapen eta sustapenerako politika publikoa bultzatzeko *Memorial democràtic* delako erakunde sortu zuen orain dela urte batzuk. Erakunde honen helburua demokraziaren alde borrokatu zuten haien oroimena berreskuratzea eta balio demokratikoak etorkizunari begira bultzatzea da. Horretarako Katalunia mailan oroimenaren lekuen sare baten eraketa bultzatu dute eta oroimenaren bideak, lubakiak, interpretazio historikorako zentruak, hilerri eta hobiak, etab. seinalatu eta ezagutzera eman dituzte²³. Andaluzian *Centro Documental y de Investigación de la Memoria Histórica de Andalucía* delakoa sortu zen eta Eusko Jaurlaritzak ere, bere aldetik, hainbat ekimen eraman ditu aurrera Giza Eskubideen eta Ondare batzordeek gidatuak. Gure testuinguruan Gernikako Bakearen Museoa aipatu behar da oroimenaren politika publikoen eredu eta oroimen leku nabarmen bat bezala²⁴. Zentzu honetan aurrerapausoak eman dira eta bide honetatik jarraitzea funtsezkoa da etorkizunari begira gizarte demokratiko sendoago bat eraiki nahi bada. Lan hone-

21. MOLINERO, Carme. "Lugares de memoria y políticas de memoria". In: GOMEZ ISA, Felipe (zuz.). *El derecho a la memoria*, 1. arg. Zarauz: Itxaropena, 2006; 300-306 or.

22. Manuel Ortiz Heras-en sarrera Franksimoaren Ikertzaileen V Bileraren liburuan. Ikus: ORTIZ HERAS, Manuel (koord.). *Memoria e Historia del Franquismo*. V Encuentro de Investigadores del Franquismo, 1. arg. Cuenca: Eds. de la Universidad de Castilla La Mancha, 2005; 11-12 or.

23. Bestalde, oroimenaren berreskurapenaren inguruko erakusketak ere antolatzen dituzte eta 2007 urtean nazioarteko jardunaldi batzuk antolatu zituzten oroimenaren politika publikoen inguruan (*Memorial democràtic: polítiques públiques de la memòria*. Barcelona, urriaren 17-20, 2007)

24. Gernikako historiari buruz baita bakea eta giza eskubideei buruzko tailer didaktikoak antolatzen dituzte bertan. Bakearen Museoa oroimenaren berreskurapenean egiten duen lana Europa mailako proiektuetan ere gauzatzen da eta Euskal Herri mailan, hau da segur aski oroimenaren lanketaren espaziorik garrantzitsuena, eta dudarik gabe aktiboena. Erakunde honi buruzko informazio gehiago aurkitzeko begiratu: <http://www.museodelapaz.org>

tarako Europako beste herrialde batzuetan orain arte burutu den lana eredu bezala hartzea ez legoke gaizki.

Europako Kontseiluak behin baino gehiagotan adierazi du europar gizarteek euren iraganarekiko duten harremanaren kezka, eta hezkuntzaren bidez XX. mendeko gertakizunei urreratzeko bide berriak bilatu behar direla azaldu du. 1990 hamarkada bukaeran bigarren hezkuntzako eskoletan irakasle eta ikasleak XX mendeko gertakizunei modu kritikoa batean urreratu zitezkeen material didaktikoa prestatzeko egitasmo bat garatu zuen erakunde honek²⁵. Bertan asko insistitzen zen iragan gatazkatsuei aurre egin behar horretan, europar herrialdeek bide demokratiko sendo batean jarraitu ahal izateko. Kontuan izan behar da urte haietan European Gerra Hotzaren amaieraren ondorioz eman ziren aldaketa garrantzitsuak. Udaberri honetan bertan Europako Kontseiluak antolaturiko batzar batean oroimenaren hezkuntzaren inguruan eztabai-datu da berriro ere²⁶.

Izan ere, XX. mendeko gertakizunek –Mundu Gerrak, Shoah, kolonialismoa, mota desberdinetako diktadurak, gerra zibilak...- ondorio sakonak izan dituzte herrialde desberdinen oroimen kolektiboan eta iraganarekiko jarrera aldaketa bat eragin dute, kasu gehienetan oroimenaren kultura berriak bultzatuz. Frantzia eta Italia, adibidez, bi mundu gerren eta Shoah-ren inguruan garatu da oroimenaren kultura²⁷. Hala ere, oroimen hau denborarekin eta egoera politikoaren aldaketekin eraldatu egin da. Italiar kasuan, adibidez, 1982 urtean Erromako sinagogak sufritu zuen erasoaren ondoren italiar gizartearen zegoen antisemitismoaren arazoa azaleratu zen eta argi gelditu zen intolerantzia eta diskriminazioari aurre egingo zion kultura bat zabaldu behar zela. Gazteek bizi zuten oroimen hustasunari aurre egiteko eskolaren papera nabarmendu zen eta hainbat eskoletan AEB-etan garatu zen *Holocaust education* delakoaren adibidea jarraituz Shoah-ren oroimenaren inguruan lan egiten hasi ziren. Gaur egun, dokumental eta filmeak erakusten dira eskoletan, nobelak irakurtzen dituzte, kontzentrazio esparruetara bisitak antolatzen dira, eta azken urteetan oroimenaren eguna ere ospatu egiten da -urtarrilaren 27^a, Auschwitz askatu zuten eguna-. Egun honen inguruan erakusketak, mahai inguruak, garaia bizi zuten pertsonekin elkarrizketak, etab. antolatzen dira.

Holokaustoari buruzko irakaskuntza II Mundu Gerra amaitu eta hamarkada batzuk geroago garatu zen. 1970 hamarkadan hasi ziren AEB-etako eskoletan Holokaustoaren inguruan irakasten, etorkizunari begira horrelako gertakizunak errepika ez zitezkeen ikasleen kontzientzia pizteko asmoarekin. Joera hau Europako beste herrialde askok jarraitu zuten ondoren, Alemania, hauen artean. Azken kasu hau aipagarria da, herrialde honetan oroimenaren kulturak izan duen pisu bereziagatik. Eskoletan lan handia egin da nazionalsozialismoaren garaiko gertakizun gogorren inguruan; bigarren hezkuntzako irakasleek ikus-entzunezkoak eta internet erabiltzen dituzte proiektu

25. *The 20th century – An interplay of views. Learning and teaching about the history of Europe in the 20th century*, Conference celebrated in Bonn, 22-24 March 2001. European Cultural Convention. Council of Europe Publishing, 2002.

26. Jardunaldien izenburua “Enseigner la mémoire à travers le patrimoine culturel” zen. 2009-ko apirilaren Praga eta Terezin-en ospaturiko bileraren gaia oroimenari buruzko irakaskuntza zen eta bertan gazteei XX mendeko gertakizun gatazkatsuen berri emateko bide berriak aztertu ziren.

27. Ikus Mémorial de la Shoah-ren web orrialdea erakunde honek ikasleekin aurrera eramaten dituen jardueren berri izateko: <http://www.memorialdelashoah.org>.

tu desberdinen bidez judutar eta beste gutxiengo batzuen sarraskia aztertzeko. Azken honekin loturik dago Israelgo *Yad Vashem* Holokaustoaren ikerketarako zentrua, irakasleen prestakuntzan eta material didaktikoen prestaketan lan handia egiten duena²⁸. Txekiar errepublikan Holokaustoak oroimenaren kultura duen garrantzia ere gero eta nabarmenagoa da, eta ondorioz gizartean dagoen eskaerari aurre egiteko irakasleentzako kurtsoak antolatu egiten dituzte Pragako Museo Judutarrean eta Terezin Institutuan²⁹. Kasu guzti hauean, iraganari buruzko modu kritiko batean ikasteaz gain, gaur egungo gatzedian antisemitismoa eta intolerantziari aurre egitea da helburua.

Beste kasu desberdin bat, Gerra Hotzaren amaierarekin iragan komunista izan duten hainbat herrialderen esperientziaren adibide, Poloniarena da. Demokraziaren ezarpenaren ondoren, *Nazioaren Oroimenaren Institutua* delako erakunde bultzatu zuen gobernu berriak, herrialde honen iragan komunistarekiko duten kezka adierazgarri³⁰. Erakunde honek dituen sekzioen artean hezkuntzari dagokion alor bat dago: honen helburua ikasleei iraganari buruzko informazioa eskeintzea –nazi eta komunistek eragindako giza eskubideen bortxaketen berri ematea nagusiki– da eta horretarako ikerketa-hezkuntza programak garatu dituzte, non ikerlariak eta historia irakasleak osatzen dituzten lan taldeak proiektu desberdinak aurrera eramaten dituzten. Museoekin elkarlanean ari dira ere, historia irakasleei zuzentzen zaizkien konferentzia, mintegi eta kurtsoak antolatuz. Bestalde, irakaskuntzan erabiltzeko material berriak garatu nahi dituzte baita ikasleei zuzenduriko erakusketak antolatu.

Badirudi beraz azken aldi honetan oroimen demokratiko berri baten eraikitze prozesuan gaudela: gizartea demokrazia garaiko helburu eta balioak sostengatuko dituen iragan baten bila hasi da, eta horretan hezkuntzak paper garrantzitsua hartu du. Oroimenaren politika bat martxan jartzeko orduan, eskola funtsezko baliabidea bihurtzen da, irakaskuntzaren funtzio soziala etorkizuneko hiritarrei jarrera zibikoaren ereduak eskeintzean datzan neurrian³¹.

4. ONDORIO ETA PROPOSAMENAK

Orokorrean oroimenaren kultura kontzeptua oso gutxi erabiltzen da gure artean. Kontzeptu honen erreferentziarik ez dugu aurkitu eskola eta hezkuntzarekin loturik, eta honek jadanik nahiko argi adierazten du eskolan oroimenaren kultura bultzatzearen inguruan dagoen kontzientzia. Izan ere, hauxe da ikerketa hau burutu ondoren atera daitekeen ondorio nagusienetako bat: ikasleek jasotako informazioari begiratzeko badiogu, testu liburuak eta beste internet eta ikus-entzunezko baliabideak aztertzeko badiugu, edota oroimenaren inguruko lanketa egiten duten museo eta erakusketen arduradunen iritziei entzuten badiogu, lan handia dago oraindik egitear. Hala ere, dagoeneko eskola batzuetan oroimenaren lanketarekin lotura duten jarduerak

28. Erakunde honen inguruan informazio gehiago aurkitzeko begiratu web orrialdea: http://www1.yadvashem.org/education/about_us.html.

29. Erakunde hauen inguruan informazio gehiago: <http://www.jewishmuseum.cz/aindex.htm> eta <http://www.terezinstudies.cz/eng/main>.

30. Erakunde honen inguruan informazio gehiago: <http://www.ipn.gov.pl/portal/en>

31. BOYD, Carolyn P. "De la memoria oficial a la memoria histórica: la guerra civil y la dictadura en los textos escolares de 1939 al presente". In: JULIA, S. (dir.): *Memoria de la guerra y del franquismo*, 1. arg. Madrid: Taurus, 2006; 80 or.

aurrera eramaten hasi direla ikusi dugu, beti ere irakasleen interes eta konpromezu pertsonalari jarraituz.

Testu liburuaren azterketak ere antzeko ondorioetara eramaten gaitu: *oroimen historikoaren eta oroimenaren berreskurapenaren* inguruko gogoeta falta nabari da. Gorago aipatu den bezala, 2000 urtearen ondoren garatu den oroimenaren berreskurapenerako gizarte mugimendu honen aipamenik ez da egiten testu liburuetan. Aurreko hamarkadetakako testu liburuak isladatzen zuten “isiltasuna” azken hamarkadako testu liburuetan apurtu bada ere, aurreko urte horietako isiltasunei buruzko hausnarketa arrastorik ez da liburuetan azaltzen. Ezin da esan, beraz, oroimenaren hezkuntzaren inguruan gaur egungo testu liburuak jarrera aktiborik hartu dutenik, ezta gai hau bere helburuen artean lehentasun bat bezala planteatzen dutenik.

Agian beste material batzuetan gai hau pixkanaka agertzen hasi da, baina inpresioa da oraindik oroimen historikoaren inguruan oso lanketa mugatua egiten dela eta ikasleei oso informazio gutxi iristen zaiela. Norbaitek argudiatu dezake oroimenak ez duela zertan historia testu liburuaren gaia izan behar, gaur egungo eztabaidaren parte bait da. Baina oroimena iraganari urreratzeko modu bat da, askotan iragan horren ikuspegia baldintzatzeri iristen dena, eta beraz kontuan hartu beharrekoa iraganaren berri ematen denean. Batez ere iragan hau gatazkatsua izan denean.

Azken horrekin lotua, Trantsizioaren gaia tratatzeko modua dago. Orokorrean epealdi hau azkar eta gehiegi sakondu gabe irakasten da. Testu liburuetan oraindik ere beste gaiekin konparatuz ez du espazio gehiegi, eta honen inguruan material didaktiko gutxiago dago erabilgarri. Ikerketa mailan ere horrela gertatu da orain dela gutxi arte, azken urteetan hasi bait dira gai hau atentzio gehiagorekin ikertzen. Ondorioz, eskolan Trantsizioari buruz hainbat gertakizun irakasten dira, batez ere aspektu politikoei eta erakundetze prozesuari dagozkionak. Baina ez da Trantsizioa gizartean nola eman zen horren inguruan interpretazio sakon bat ematen. Oroimenaren berreskurapenaren gaia ez da soilik Gerra Zibila eta Francoren diktadura garaiko gertakizunei buruzko informazio gehiago ematearekin lotu behar, baizik eta Trantsizioari buruz ematen den interpretazioa ere kontuan izan behar da. Hau da, nolakoa izan zen Trantsizioa eta ze paper jokatu zuen iraganaren oroimenak prozesu honetan, etorkizuna nola baldintzatu zuen guzti honek.

Orrialde hauetan oroimenaren inguruko hausnarketak duen garrantzia azpimarratzen saiatu gara. Ez bakarrik gertaturikoak gogoratzea eta ez ahaztea garrantzitsua delako, baizik eta gertaturikoak nola gogoratzen diren ulertzeak handik aurrera hartu diren erabakiak hobeto ulertzen laguntzen digulako. Gure azken mendeko historiari dagokionez, Gerra Zibiletik aurrera gertaturikoak nola gogoratzen diren aintzat hartzen badugu, demokraziarako trantsizio prozesua bera nola gertatu zen hobeto ulertuko dugu, baita gure gaur egungo gizartean oraindik konpontzearen dauden hainbat eztabaida.

Bestalde, unibertsitate eta eskolen arteko kontaktuak ere askotan oso muga-
tuak dira. Ikerketa berrien ondorio diren ezagutza historikoak eta oroimenaren didaktika lan egiten duten irakasleen gogoetak bigarren hezkuntzako irakasleei ezagutzera emateko dauden bideak erraztea beharrezkoa da. Agian isiltasunak eta interes falta diruditen hainbat gauza informazioa zabaldu eta lortzeko zailtasunak besterik ez dira. Zentzu horretan, eta etorkizunari begira, unibertsitate eta eskoletako irakasleen

artean kontaktua eta elkarlana sustatzeko aukera gehiago –jardunaldiak, mintegiak, proiektu amankomunak- bultzatu beharko lirateke. Informazioa zabaltzeko zailtasunei aurre egiteko beste aukera bat sare bat sortzea da, non interesa duten irakasleek beren gogoeta eta esperientzien berri eman dezakete eta informazio bila ari direnak ideia baliagarriak aurki ditzaketen³². Europako beste herrialde batzuetan gertatu den moduan, interesgarria izango litzateke erakunderen batek oroimenaren lanketaren inguruan formakuntza eman, materiala prestatu eta informazioa banatzeko ardura hartzea.

Eskolan oroimena nola landu, ze baliabide erabili, ze prozedura jarraitu eta zein helbururekin, guzti honen inguruan gogoeta falta da. Oroimen politika berriak bultzatu behar direla eta horretan eskolak funtzio garrantzitsua betetzen duela esaten deanean, ez da horrekin esan nahi eskolan oroitzapen egunak ospatzea eta oroitzapen objektuak sortzea soilik tokatzen zaigunik, baizik eta gizartean iraganarekiko jarrera jakin bat bultzatu behar dela: gure kasuan, gazteei iragan gatazkatsu batean gertaturikoak ezagutzera ematea eta gertaera hauen konplexutasuna ulertzen laguntzea.

Etorkizunari begira, horretarako dauzkagun baliabideak hobeto erabili behar ditugu: museo eta erakusketak bisitatu, hitzaldiak eta gertakizunak bizi zituzten pertsonekin elkarriketak bultzatu, oroimen lekuen inguruko ikerketak burutu... Oroimenaren inguruko ikerketa txiki batek ikasleei iraganari buruz ikuspegi desberdinak daudela jabetzen lagunduko die: gauza bat dela gertatu dena eta beste bat gertaturiko hori gizarteak –eta bertan egon daitezkeen talde desberdinak- nola gogoratzen duten. Irakasleek historia ze punturarte eztabaida politikoekin eta gaur egungo egoerekin lotua dagoen ikusiko dute, iragana eta orainaren lotura estuez jabetuz. Lan hau burutzeko irakasleen aldetik interesa badagoela ikusi da, eta segur aski irakasleek ere eskertuko lukete guzti honen inguruan sakontasun gehiagoz jardutea. Lanean hasteko bidea irekia dugu beraz.

32. Lehen pauso bat, irakasleen arteko ekimenak bultzatzeko talde bat sortzea izan daiteke. Adibide moduan, Galizian badago oroimenaren hezkuntzaren inguruan lan egiten duen bigarren hezkuntzako irakasle talde bat -*Sine Nomine*- II Errepublika, Gerra Zibila eta Francoren diktadurari buruzko material didaktiko interesgarria osatu duena. Mintegi eta hitzaldiak antolatzeaz gain, bigarren hezkuntzako irakasleei zuzenduriko zine eta historia jardunaldiak ere antolatu izan dituzte, frankismoaren oroimena hezkuntzan nola landu daitezkeen eztabaidatuz.